

**GURE ARTEA 2021 SARIAK  
PREMIOS GURE ARTEA 2021**

2021-10-05 Artium Museoa - Vitoria-Gasteiz - Museo Artium 05-10-2021

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Gasteiz, Araba eta Euskadiko herri agintari eta herri ordezkariok; Epaimahaikideok, Saridunok, jaun-andreok, arratsalde on.

Egun esanguratsuan egiten ari gara ekitaldi hau, izan ere, gaur, Osasun larrialdiaren amaiera iragarri dugu, Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuak adierazi duen bezela. Horri esker, atzean utzi genuen bizimodura itzultzen joango gara pixkanaka-pixkanaka.

Pandemiaren hamazortzi hilabete luze hauetan, kulturarekin dugun konpromisoari eusten saiatu gara. Bereziki, herri honetako sortzaileekin daukagun ordaina.

Gaur zuek, Peio Aguirre-k, Damaris Pan-ek eta Dario Urzay-k, Gure Arte Saria jasoko duzue eta, zuen bidez, egoera zail honetan artea eta kultura bizirik mantendu duten sortzaileen lana eta konpromisoa ere eskertu nahi dugu.

Sorkuntza da gizarte guztiek inguruan gertatzen dena hobeto ulertzeko eta interpretatzeko izan duen tresna indartsu bat. Sorkuntza eta artea etengabeko ariketa batetan murgilduta bizi dira: galderak eginez, erantzunak bilatuz, gizartearen kontzientziak astintzen jarduten dira.

El arte siempre ha sido una poderosa herramienta de búsqueda de respuestas a las encrucijadas de cada momento. Una ventana para tratar de interpretar lo que acontece.

En todo proceso de aprendizaje se avanza cuando las preguntas hacen referencia a las causas verdaderas de la realidad que vivimos. Son las preguntas que mueven las conciencias y estimulan la reflexión.

El arte y la creación formulan preguntas, cuestionan, buscan respuestas para volver a cuestionar cada afirmación, en una evolución continua hacia el

conocimiento. Los Premios Gure Artea reconocen este proceso y a las personas que lo favorecen con pasión, voluntad y creatividad.

Peio Aguirre, Damaris Pan, Darío Urzay, recibís este Premio Gure Artea porque aportáis y sumáis trayectoria, compromiso y creatividad a nuestra sociedad.

Gure asmoa, nahia eta gogoia da zuen lana aitortzea eta zuen ekarpena ezagunagoa egitea. Azken aldian bizi izan ditugun garaiak oso zailak izan arren, zeregin horretan ez dugu etsi.

Eusko Jaurlaritzak, bizitzea egokitu zaigun garai zail hauetan, etengabe eutsi dio lan artistikoaren babesari: iaz 150.000 euro bideratu genituen artelanak erosteko, arte sortzaileak igarotzen ari ziren zailtasunak arintze aldera. Aurten ere konpromiso berdina berritu dugu. Konpromiso hau Bilboko Arte Eder Museoaren, Donostiako Tabakaleraren eta Gasteizko Artium Museoaren bidez bideratuko dugu, hiru Museoen elkarlana sustatuz.

Bukatzeko, aurtengo Gure Artea sarietako protagonistak zaretenoi, gure aitortpena:

- Dario Urzay: 40 urte hauetan egin duzun ibilbide eta ekarpen artistikoa azpimarratu nahi dugu;
- Damaris Pan: azken urteotan pinturan bizi den berpizkundearen ordezkari nagusietako bat izan zarela nabarmendu nahi dugu; eta
- Peio Aguirre arte plastiko eta ikusizko arloan agente gisa egindako lana aitortu nahi dugu.

Dario, Damaris eta Peio, Gure Artea Saridunak, eskerrik asko eta zorionak!

Eskerrik asko denoi.